



"Berdintasunaren oihalak", saretze lanaren fruitua

Larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan hasita, berdintasunaren aldeko martxa bana abiatuko da Andoaingo Ama Kandidatik eta Algodonerako emakumeen plazatik. Bi martxak Plaza Morean antolatu duten festan amaituko dira / 6-9

Martxoaren 8a

Hitzordu-sorta zabala Andoainen eta Urnietan / 4-5

Pilar Olaciregui Olano
eta Atalaia etxea,
Urnietako
harrera-familia
garai zailenetan / 2-3

Eski-irteera
egingo du
Zanpatuzek Luz
Ardidenera,
martxoaren 11n / 13

Eskudero eta Irazu
erremontistak, Berria
txapelketan egingo
duten debutaren
atarian / 12



80 urte betetzear da Pilar Olaciregui Olano. Hiru hamarkada igaro badira ere, harreman estua dauka, oraindik, Raquelekin. AIURRI

Atalaia, harrera-familia garai zailenetan

Jende askoren aterpe izan zen Urnietako Atalaia etxea 80. hamarkadan. Drogekin arazo larriak zituen jendeak babesa topatu zuen Pilar Olacireguien familian, horien artean, Raquelek

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Astigarragakoa sortzez, urteak daramatza Pilar Olaciregui Olano Urnietan. Bada, bizipen asko gordetzen ditu bere etxeak, Atalaiak, sekula ez baitio laguntza ukatu ate joka etorri den inori, ez eta 80. hamarkada gogor bezain bizian ere. Eskua luzatu zien hamaikari, Euskal Herrian, heroinak, HIESak, gatzka armatuak eta euskal rock erradikalak erretratututako garaian.

Kale kantoi guztietara ailegatu, sartu zen *zaldia* eta gazte askoren bizitzak eraman zituen aurretik, baita Urnietan ere.

Hariari tira egin eta, pixkanaka-pixkanaka, jende askori babesa eskaini zien Olaciregui. Iloba baten mendekotasuna medio murgildu zen Gizakia Helburu (Proyecto Hombre) egitasmoan, eta hurbiletik lagundu zion desintoxikazio-prozesuan. Garai horretan, zazpi ziren etxean: senarrarekin eta bost seme-alabarekin batera bizi zen. Egitasmoa urrutitik jarraitu arren, belarriak zorrotzuta entzuten zituzten guztiek amaren istorioak, harik eta, egun batean, senitartekoak egongelan bildu zituen arte: Caritasek “Laguntza familian” proiektu aitzindaria

ipini zuen martxan, eta Gipuzkoa kanpotik Gizakia Helburura etortzen zen jendeari drogamenpekotasunarekin laguntzea zuen xede horrek, harrera familien bidez.

Bi aldiz pentsatu gabe, bertan murgildu zen Pilar Olaciregui, baita haren familia ere. “Gure kasuan, Raquel etorri zen”, du gogoan Pili Santin etxeko alaba zaharrenak (19 urte inguru zituen garai hartan), “etxean bizi behar zuen gurekin eta prozesuarekin laguntzea erabaki genuen guztiok”. Oso eskertua jarraitzen du gaur egun familiako amak, etxekoekin egindako bileran,

aho batez erabaki baitzuten denek proposamenari baiezkoa ematea: “Gogorra zen jendeari desintoxikazio-prozesuan laguntzea. Gogortasun hori bigundu egin behar zen eta gu prest ginen horretarako”.

Gauzak horrela, hemeretzi urterekin iritsi zen Iruñetik Raquel A.B. (aurrerantzean, Raquel) Atalaia etxera, heroinarekiko mendekotasun handiarekin: “Betebehar gisa bizi nuen, hasieran, hara joatea; ez neukan beste aukerarik. Ezezaguna zitzaidan proiektua baina, era berean, eskertuta nengoen, ez bainuen inor ezagutzen Gipuzkoan eta, nire etxean, ez ninduten nahi”. Hori gutxi balitz bezala, bere gertuko jende askok HIESA nola harrapatzen zuen ikusi zuen iruindarrak, xiringak partekatzearen ondorio, besteak beste: “Lagun-minak hil zaizkit. Zorioneko sentitzen naiz, ez bainintzen gaixotu”.

Garai hartan, Raquelek ez zuen heroina uzteko asmorik, ez zitzaion “sekula burutik pasa kontsumitzeari uztea”. Alabaina, behartuta ikusi zuen bere burua eta hasiera oso gogorra izan zela gogoratzen dute guztiek, heroinak zeharo harrapatuta baitzeukan. Berehalako hutsunea, abstinencia sindrome gogorra uzten duen droga da, haren kontsumoak mendekotasun handia sortzeraino: epe laburreko plazera ematen duenak, epe luzean, gaizki-egon handia eragiten du. Bada, kontsumitzeari uzteko pausua eman behar izan zuen Raquelek, Atalaian sartu zenean, eta, gutxi gorabehera, urtebetez egon zen bizitzen etxean, Gizakia Helburu prozesuan aurrerapausoa eman eta “Komunitate Terapeutikoa” fasera aldatu aurretik.

Behera eta gora

Ailegatu eta denbora tarte laburrera, jada, ondo baino hobeto elkar ulertzen ziren arren, batzuetan, bidegurutzeekin egin zuten topo urtebetean, bai eta, iruindarraren partetik, familiako kideen konfiantza urratzeko moduko jarrera oztopotsuarekin ere. Alegia, izan zen sartu-irtenik etxean, adikzioa dela-eta edukitako jarrera desegokiak baldintzatuta. Hain justu, inflexio-puntu moduan bizi du Alazne Santin familiako alabak momentu hori, haren ustez, hor eman baitzuen jarrera aldaketa

Raquelek egiten ari zen prozesuan: “Oso haserre geunden, baina berriro bildu ginen eta bigarren aukera eman genion. Berak ez zuen espero, eta, orduantxe, drastikoki, izugarrizko aldaketa eman zuen”.

Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 18:00etara izaten zen Gizakia Helburun, eta, beti-beti, lagunduta egin behar zituen bertatik etxerako joan-etorriak, gehienetan, Pilar amarekin. Nola bizi zuen, baina, berak sekula bakarrik egon ezin ahal izatea? “Onartu egiten duzu, horrela izan behar zuelako bai ala bai, ez neukan beste aukerarik. Behin sindromea gutxituta, moldatu egiten zara egunerokora”. Hala, etxeko zereginetan buru-belarri aritzen zen eta, anai-arrebak adin bertsukoak zituenez, makina bat plan egiten zituzten batera, parranda-girotik eta drogetatik urrun, egoeraren konfidentziasuna beti ere mantenduta. Begirada zorrotzez jokatu behar zuten etxekoek, Pili alaba zaharrenaren esanetan, “ezin zuen ezer egin gure baimenik gabe”. Azken finean, familiako beste kide bat bailitzan hartu zuten etxean Raquel, bai une goxoetan, bai errietetan. Alabatzat zuen Pilar Olaciregui: “Gurera egokitu zen, eta guk ere neurria hartu genion. Ondorioz, giro ona zegoen etxean eta hori oso garrantzitsua da. Berak gutaz zekien adina genekien guk hari buruz, oso irekia eta emana izan da beti. Horrelako egoera batean, garrantzitsua izan zen laguntza eta komunikazioa”.

Hamabi hilabeteko bidea egin ondoren, “Komunitate Terapeutikoa” fasera egin zuen aurrerantz jauzi bere prozesuan Raquelek, eta, horregatik, etxea utzi egin behar izan zuen. Edo nola ere, posible zen guztietan joaten zen Santin-Olaciregui familia bisitan eta haren osaketaren lekuko, gertutik bizi izan zuten prozesua, amaierara iritsi zen arte.

Halere, erronkak ez ziren amaitu Raquelentzat, Alazne Santin ahizparen hitzetan, kaleari neurria hartu behar izan baitzion berriro. Harekin bat da iruindarra, eta, gaur egun, esaterako, ez dauka harremanik heroina bitarteko zela ezagutu zuen inorekin: “Behin prozesua amaituta, ezin nion kalean ezagututako inori jaramonik egiten; Gizakia Helburun, ez ziguten uzten.

Errotik moztu beharreko zer bait zen, baina, oso gogorra, aldi berean”.

Dena dela, behin sendatuta zegoela, zenbait urtez, Gizakia Helburu erakundearekin hartu-emanen izan zen, 1990. urtean ireki baitzuen zentroak beren Iruñeko lehen espazioa. Hantxe egin zuen lan, taldean, terapeu-ta gisa, aldaketa baten beharra sumatu eta norabide berri bat hartu zuen arte.

Borondate amaigabea

Santin-Olaciregui familiaren altruismoa, oster, ez zen Ra-quelen esperientziarekin amai-tu. Aitzitik, bide eman zion Atalaia etxeari antzeko egoera-tik igarotzen ari ziren bi kide hartzeko, banan-banan, bata bestearen atzetik. Olaciregui zen Gizakia Helburu egitasmoan formakuntza apurra jaso zuen etxeko kide bakarra. Nolanahi ere, guztiek eutsi behar zioten pultsua egunerokoan suertatzen ziren tira-bira nahiz buruhaus-teei. “Oso zaila da drogamenpe-kotasuna duen pertsona bat hartzea etxean”, baieztatu du Pilar amak, “baina jende asko-



Familiaren parte dira Raquel eta senarra Olaciregui zein beren seme-alabentzat. AIURRI

ri lagundu diogu osatzen. On-dorengoei Raquel ipintzen nien adibide moduan”.

Horrez gain, Urnietako jende askoren aterpe ere izan zen 80. hamarkadan, baita, Pili alabaren esanetan, herritik kanpoko jen-dearena ere: “Drogekin arazorik izan ez duen jendea lagundu dugu etxean. Jende askori la-gundu dio amak lehen mailako premiak asetzen ere”. Halaber, denbora luzez izaten zen Olaci-regui etxetik kanpo, borondatez,

lanean, pixkanaka-pixkanaka, tutoretzapeko pisu-kopurua area-gotzen eta komentuak erantzukizun handiagoa hartzen joan ziren heinean.

Caritasekin nahiz Gizakia Helbururekin elkarlanean ari-tzeaz gain, Remar Gobernu Kanpoko Erakunde erlijiosoa ere gertu izan zuen Olaciregui. Lau hamarkadako ibilbidearekin, 1982an sortu zen Espainiako Estatuan Remar, batez ere, dro-gen mendekotasunengatik, gi-

zarte-bazterkerian eroritako pertsonen beharrianak asetze-ko xedearekin eta ikuspegiare-kin. Denboraren joanarekin, berriz, jendartearen zuloak eta premiak aldatzen joan dira eta horiei ere erantzuten darrai. Hori horrela, erakundearekin harreman estua izan zuten, eli-kadura eta arropa ematen bai-tzieten, eta, era berean, jende asko bideratu zuten bertara, apurka-apurka, beren bizitzetan beste lehentasun batzuk ipini behar izan zituzten arte.

Atzera begira, harro

Hiru hamarkada pasatxo igaro dira, Raquelek Atalaian arrastoa utzi zuenetik. Hiru hamarkada pasatxo, hain zuzen ere, iruin-darrak prozesua amaitu eta edozein motatako droga-kontsu-moari uko egin zionetik. Egun, bi seme-alaba nahiz senarra ditu eta eurekin bere iragana kon-partitzea garrantzitsua delakoan da: “Inportantea da beraiek ere jakinaren gainean egotea, egoe-ra hobeto uler dezaten. Hazten laguntzen dizute, gauzak ulertzen laguntzen”. Urteak joan, urteak etorri, gaur gaurkoz, harreman

estua mantentzen du Urnietako familiarekin: “Oso gustuko dut hona etortzea. Oso eskertuta nago beraiekin. Esentziak bere horretan jarraitzen du”. Hori bera uste du Pilar amak ere, kariño handiz ireki izan baitiz-kio-eta bere etxeko ateak lagun-tza behar izan duen edonori: “Raquel lehenengoz ikusi nue-nean, banekien aurrera aterako zela”. Bere intuizioak ez zuen kale egin eta, egun, nork bere bizitza izan arren, familiako kide da oraindik. Haren bisital-diek etxekoak oso kontent ipin-tzen dituela dio Pili Santinek eta gauza beraren iritzi da Alaz-ne ahizpa: “Nahiz eta denbora tarte bat elkar ikusi gabe igaro, ez litzateke ezer aldatuko. Gure ahizpa da”.

Zenbaitetan, bidea mikatz, beste hainbatetan, samur, irri-barrez gogoratzen ditu Raque-lek Atalaian bizitakoak: “Ho-rrelako jende gehiago behar da. Energia polita zein maitasun handia biltzen da etxe horretan eta oso eskertuta nago, izugarri lagundu zidatelako. Haiei esker nago, orain, hemen, guztia kon-tatzen”.

Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betikotzen direlako baizik.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

araba álava

Bizkaia

EUDE

EMAKUNDE



Luke Goñi Berdintasun Saileko zinegotzia eta Edurne Gallo Berdintasun teknikaria. UDALA

Martxoaren 8a Urnietan

Berdintasuna aldarrikatzearekin batera, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea bermatuko duen konpromisoa agertu du Urnietako Udalak. Datozen egunetarako ekitaldi-sorta antolatu du

Erredakzioa URNIETA

Martxoaren 8a iristear da eta Urnietako Udalak ekitaldi-sorta iragarri du: "Aldarrikapen eguna da, non, emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna eskatzen den. 25 urte baino gehiago igaro dira, Beji-neko Adierazpenean, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta orduz geroztik aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak".

Emakumeen parte-hartzeak mugatua izaten jarraitzen du alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste,

politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan. "Horrenbestez, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaren eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Halaber, emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo

"EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA IKUSPEGI ASKOZ ERE ZABALAGO BATETIK ULERTU BEHAR DA"

arauemaitetik, eta emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar dira".

Urnietako Udalak, ohar bidez azaldu duenez, "emakumeen lidergoa bultzatzen jarraituko du, baita boterea berdintasunean gauzatzeko baldintzak sustatzen ere, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea indartuko duten politikak aurrera eramanez".

Adierazpenarekin batera, ekitaldi-sorta iragarri dute. Ikasleei eta gizarte zabalari begira, hitzordu ugari izango da datozen egunotan.

"ERABAKIGUNEETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ALDATU BEHAR DIRA"



Gaztelekua. AIURRI

Martxoak 8 Urnietan

MARTXOAK 8, ASTEAZKENA Mural lehiaketa

Mural lehiaketan parte hartzen dutenek, Gaztelekuan bertan egin eta aurkeztuko dituzte lanak 17:00-20:00 bitartean. Ondoren, martxoaren 13ra arte egongo dira aurkezturiko muralak ikusgai Gaztelekuan eta martxoaren 14an, bozketaren kontaketa egin eta mural irabazlea hautatuko da. Irabazleak Gazteleku barruko pareta batean bere murala pintatzeko aukera izango du. 17:00 Gaztelekua.

Elkarretaratzea

Udalak antolatuta. Amaieran, Lourdes Iriondo Musika eskolako Enara Donaverak eta Jone Izagirrek saiotxoa eskainiko dute. 18:00 San Juan plaza.

MARTXOAK 9, OSTEGUNA Umore bakarriketa

Nerea Arriola youtuber eta aktoreak "Asterisko" bakarriketa eskainiko du. 19:00 Sarobe.

MARTXOAK 12, IGANDEA Antzerkia, "Las que limpian"

Sistema turistikoa prekarizatzailea bere gain hartzen duten emakume ikusezinak dira antzezlanaren protagonistak. Komedia garratz eta itxaropentsu honek hoteletako garbitzaileen borroka antolatua aldarrikatzen du. 19:00 Sarobe.

HAINBAT EGUNEZ

Txoko berezia Liburutegian
Udal liburutegian martxoaren 8ari loturiko txoko berezia egokituko dute, berriki Emakume zientzialarien gaineko liburuekin egin bezala.

Jarduerak ikastetxeetan

Udalaren eskutik, Egapeko eta Magaleko ikasleentzako ekintza bereziak garatuko dira. Martxoaren 7an Nerea Arriolak 14 urtertik gorako ikasleentzat saioak eskainiko ditu. Eta hilaren 8an, berriz, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria DBHko ikasleekin ariko da.



Urnietako
udala



AIURRI

Manifestazioa Andoainen, martxoaren 8an

Feminismoak indar handia hartu du, eta Andoain ere horren isla da. Azken urteotan martxoaren 8an eta azaroaren 25ean manifestazio jendetsuak izan dira. Datorren asteazkenean Goikoplazatik abiatuko da manifestazioa, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Andoaingo Asanblada Feministak, bestalde, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Baita Zuen elkarteak ere. Jendarte ekimenetik eta Andoaingo Udalaren lanskail ezberdinetatik antolatutako egitarautik, datozen egunetako agenda hitzordu morez beterik dator.

IRITZIA

ANDOAINGO MUGIMENDU FEMINISTA ANDOAIN

Kalean ikusiko dugu elkar!

Andoaingo Mugimendu Feministatik martxoak 8aren bueltan egitaraua osatu dugu. Hasteko, ostegun honetan, martxoak 2an musikaz girotutako pintxopote feminista izango dugu herrian; Juanita Alkain plazatik hasi eta Zumea arte.

Ostiralean, martxoak 3, 18:00etan pankarta eta txapak egiteko bilduko gara Espigoian, borroka feminista kalera ateratzeko helburuz, eta herriko jendeari parte hartzera gonbidatuz.

Martxoaren 8a, aldarrikapen eguna izango da eta 18:30ean Gokoplazatik hasiko den manifestazioa deitu dugu. Arrazoi nahikoa ditugu kalera atera eta gure aldarriak oihukatzeke. Aurten, zaintza izango da borroka esparru nagusia. Zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzeko eta ezin dira ikusezin eta merkantilizatzen jarraitu. Gizartea eraldatzeko neurriak bultzatu nahi ditugu, zaintzak negozio izateari utz diezaion. Zaintzak irauli, dena aldatzeko. Egungo zaintza



Espigoian elkartu ziren asanbladako hainbat kide. ASANBLADA

erregimen kapitalista, patriarkal eta arrazista eraldatzeko asmoz, kaleak hartuko ditugu hurrengo martxoaren 8an. Guk ez dugulako sistema hau zainduko, denon bizitzak erdigunean!

Azkenik, martxoaren 23an, 19:00etan "Munstroak hemen dira. Sistema lodifobia suntsitzeko lehen pausoak" hitzaldia izango dugu

Andoaingo Gaztetxean. Ezin Kabituko hiru kideren eskutik, lodifobiaren gainean hausnartzeko aukera izango dugu bertan. Hau honela, herriko norbanako orori eskaintza eta ekintza hauetan parte hartzera animatu nahi diegu. Borroka feministara batu eta gurekin antolatzeke deia luzatzen diegu herritarrei Andoaingo feministok.

Kalean ikusiko dugu elkar!



Kai Nakai artista martxoaren 10ean ariko da Basteron. KAINAKAI

Martxoak 8 Andoainen

Martxoak 3, ostirala

Txapa eta pankarta tailerra, Asanblada Feministak antolatuta. 18:00 Espigoia.

"La panadera" antzelana. 20:00 Bastero.

Martxoak 4, larunbata

"Berdintasunerako oihalak". 12:00-14:00 Plaza morea.

Martxoak 7, asteartea

Film laburreak: *Madres de luna, Pipas, Cerdita, Aurelia, La Boda, Atocha 70*. 18:30 Bastero.

Martxoak 8, asteazkena

Irakurketa morea. 17:00 Ludoteka.

Manifestazioa, Asanblada Feministak antolatuta. 18:30 Goikoplaza.

Martxoak 9, osteguna

"Tuppersex", Zuenak antolatuta. 20:30 Bastero.

Martxoak 10, ostirala

Ezpainetako kakaoa eta aromaterapia. 17:00 Gazte Lokala.

Kai Nakai artistaren emanaldia. 20:00 Bastero.

Martxoak 11, larunbata

Pala zabaleko topaketa irekia. 10:00-14:00 Arrate.

Martxoak 12, igandea

Emakume futbolarien jaia. 12:00 Ubitarte.

Martxoak 15, asteazkena

Futbola hizpide, Euskaldunaren eskutik. 18:30 Bastero.

Martxoak 18, larunbata

Emakumeen pala topaketa. Parte-hartze irekia da. 17:00-20:00 Arrate.

Martxoak 23, osteguna

Hitzaldia, Lodifobia hizpide, Asanblada Feministak antolatuta. 19:00 Gaztetxea.





Berdintasunaren martxa bikoitza, larunbat honetan

Martxoaren 8ari begira, Andoainen lanketa berezia egin da asteotan. Udalak eta jendarte eragileek ekimen-sorta zabala antolatu dute, eta, horien guztien artean, bada ekimen bat nabarmendu beharrekoa: larunbat eguerdian burutuko den martxa bikoitza

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Oihalak esanahi berezia izango du aurtengo egitarauan, "Berdintasunaren Oihalak" ekimena

abian jarri baita. Larunbat eguerdian martxa bikoitza abiatuko da, eta jositako oihal erraldoiak eskuan hartuta, udalerria

zeharkatuko dute. Bi martxak Bastero Kulturgunearen aurrealdean dagoen Plaza Morean amaituko dira, eta bertan ospakizun

nagusiari hasiera emango diote. Aldarrikapenetik eta festatik, bietatik izango baitu ekimenak. Sorpresak izango direla igarri dute. Gauzak horrela, "Martxoak 8 Emakume" ekimena ordezkatzera datorren "Berdintasunaren Oihalak" aurkeztuko da herriarren aurrean.

Larunbata iritsi bitarte, hainbat emakume inurri-lanean aritu da oihal zatiak jasoz, eta josiz. Saretze-lana izan da, askotariko adin eta jatorritako emakumeak lanean jarritz. Oso esperientzia aberasgarria izan da, bertan izan direnen lekukotzaren arabera. **Ines Medinarentzat**, adibidez, "asteotako lanketa bi arrazoirengatik gertatu zaigu betegarria: batetik, emakumeen arteko egitasmo kolektiboa izan delako, eta bestetik, geure arteko lagun-giroa sakontzen lagundu digulako". **Amaia San Martinek** herria gogoan izan du, ekimenean murgiltzeko garaian: "Proposa-

men erakargarria zen, eta herriarentzat polita zela iruditzen zitzaigun. Emakume gisa, inplikatu behar genuela ikusi genuen. Nire ustez, harrituta geldituko da jendea egin dugun lanarekin".

Jone Larrañaga eta **Ane Amondarain** ekimenaren sustatzaileetakoak dira, eta gisa honetako ekitaldien beharra azpimarratu dute: "Oihalekin lan egiteko proposamena sortu zen, emakumeon artean, saretzeko, josteko eta loturak sortzeko aukera ematen zizulako. Nabarmenezkoa da egindako bidea. Oihalgintzak oso emakume ezberdinetara iristeko aukera eman digu, eta martxoaren 4an ikusiko da ahalduz ariketaren nahiz saretzearen emaitza". Larunbateraino zain egon beharrean, zerbait aurreratzekotan, honako haxe Ines Medinaren zehaztapena: "Larunbatekoak Andoaingo emakumeen aniztasuna modu artistikoan sinbolizatuko du".





Ekitaldi nagusia Plaza Morean



"Berdintasun Oihalak" ekimena larunbat honetan abiatuko da, eguerdiko 12:00tan, bi martxatan banatuta. **Ama Kandida etorbidean** dagoen San Juan Bataiatzailea nagusien egoitzatik abiatuko da martxatako bat. Kaletxikitik barrena Goikoplaza aldera igoko dira. Bigarren martxa ordu berean abiatuko da **Algodonerako Emakumeen Plazatik**. Kale Nagusian gora Juanita Alkain plazatxora hurbilduko da. Bi martxak Plaza Morean elkartuko dira, eta Bastero Kulturgunearen kanpoaldean ekitaldi nagusia iragarrita dago. Ekitaldia baino gehiago, antolatzaileek "festa" modura deskribatuko dute. Izan ere, 14:00ak arte pintxoak eta disko-jartzailea iragarri dituzte. Aldarrikapenak egiteko aukera baliatuko dute, baina gainera sorpresak iragarrita daude. Ekitaldi gogoangarria izateko osagai guztiak ditu, beraz, larunbatekoak. Ez esan gero iragarrita ez zegoenik!



Oihalgintza ardatz hartuta, emakume ugari saretu da larunbateko ekitaldiari begira. AIURRI





Oihal erraldoia eskegi dute

Bi martxatan erabiliko dituzten oihalez gain, asteotan mural erraldoia lantzen aritu dira. Tamaina handikoa da, eta material gogor samarrekoa. Zailtasun bereziko lanaldia izan da.

Mural erraldoia osatzeko lan gehiena Bastero Kulturgunean egin zuten, eta asteazken goizean, udal langileek garabi baten laguntzarekin eskegi zuten Plaza Morean. Ikusgarri geratu da.



Ekimenean parte hartu duten kide batzuk hurbildu ziren Plaza Moreara, asteazken goizean. AIURRI



Asteazken goizetik ikusgai dago azken asteotan egindako lanketa. Ikusgarria da. AIURRI





Dozenaka emakume, saretuta

Martxoaren 4ko ekitaldiari begira, lanketa handia egin da aurreko asteetan. Zuen elkarteko kideen eta Andoaingo Guduko jostunen aldetik. Era berean, norbanako asko ere aritu da oihalak josten. Larunbat

honetarako bi martxak gogoan, kalea hartzeko baliagarriak izango diren oihak zatiak josi dituzte. Bestalde, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, oihak erraldoia josi dute. Irudian ikus

daitekeenez, izaera eta jatorri ezberdineko emakumez osaturik dago. Material gogorra da, eta eskuz egin behar izan den lanketa handi samarra izan da. Ordu asko egin dituzte joskintza lanetan.

Lan guztiak amaituta zirela, asteazken goizean eskegi zuten Plaza morean. Sarean, elkarlanean egindako lana argitara jarri dute. Larunbat eguerdiko ekitaldian, zentzu osoa hartuko du egindako guztiak.



Basteron lanketa handiena oihak edo mural erraldoia jostea izan da. AIURRI



Askotariko belaunalditako emakumeak aritu dira lanean, Bastero Kulturgunean. AIURRI





Hatzak urratu arte, lanean

Plaza Morean eskegi duten murala ederra da, ikusgarria. Pasioz eta gustu handiz egindako lana izan da, baina, era berean, langintza gogorrean bilakatu da. Josi beharreko materiala oso gogorra da eta eskuak, hatzak behartu behar izan dituzte gogotik. Plaza Morean murala ipintzen ari ziren bitartean, partaideetako batzuk aurreko egunetako lanaren ondorioak erakutsi zizkiguten. Argazkian ikus daitekeenez, hatzak urratuta zeuden erabat.



AIURRI

Martxoak 8 Aiurri.eus webgunean



ALBISTEAK



ARGAZKI-BILDUMAK, BIDEOAK



AGENDA

AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA


Lan-deialdia

45 urtetik gorako zortzi pertsona kontratatzeko deialdia iragarri du Andoaingo Udalak. Formakuntza eta lana eskaintzeko egitasmoaren aukeraketa Lanbideren bitartez egingo da. Martxoaren 7ra bitarte zabalik dago izen-ematea

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak pestakuntza eta kontratazio egitasmoa iragarri du, 45 urtetik gorako emakumezkoei begira. Sei hilabetez muralismoaren esparruan ariko dira. Programaren hasiera-data martxoaren 20rako aurreikusita dago, eta eskaintzako lanpostuak hautatzeko modua Lanbidek ezarriko du. Interesatuak martxoaren 7 baino lehen eman behar dute izena.

Interesatuak Lanbiden izena emanda egon behar dute eta oinarritzko baldintzak bete behar dituzte (www.lanbide.eus).

Informazioa:

- Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Lansaila.
- 943 304 221.
- enplegua@andoain.eus.
- efteknikaria@andoain.eus.



Muralak egiteko langintzan trebatuko dituzte. SERGIOBIANCHI

GORA ETA BEHERA



Arriskutsua

Olagain aldean adineko ugari bizi da, eta herrigunetik auzunera hurbiltzeko zebra-bidearen egoera oso kaskarra da. Erorketak saiheste aldera, zebra-bideko zuloak konpondu beharko lirateke.



AIURRI

"Xabi"rentzat pasta-kaxa

Egunean Behin lehiaketa ezagunaren 11. denboraldia aurrera doa eta dagoeneko 4 aste oso igaro dira. "Azabala" da laugarren asteko irabazlea, partida guztiak jokatu dituztenen artean zozketa egin eta gero. Hirugarren astean "Xabi" izan zen sariduna, eta aurreko ostiralean Arruti gozotegitik igaro zen zegokin sari gozoaren bila.



AIURRI

POSTONTZIA

ERNAI ANDOAIN

Andoaindik ari gara

Ernai gazte antolakundeak hamar urte beteko ditu aurten eta, hori ospatzeko, herriko Irunberri Kultur Elkartearen egun berezia antolatu dugu, "Andoaindik Ari Gara" lemapean. Martxoaren 18an, egun osoko egitaraua izango dugu herrian. Ekintza batzuk elkartearen izango dira eta beste batzuk tabernan. Hala, egun osoan, bizitasuna eman nahi diogu Irunberriri.

Ospakizun eguna izan arren, hausnartzeko eta antolatzeke eguna izango dela aldarrikatu nahi dugu. Gazteria kontziente baten aldeko apustua da gurea eta testuinguru sozioekonomiko eta politiko nahasi batean kokatzen garela jakin badakigu. Beraz, ez dugu ahaztea nahi gozamenaren eta borroka elkarrekin joan daitezkeela. Gure eguneroko borroken kezka, ideia eta aldarriak biltzeko helburua dugu egun honetan. Eraiki nahi dugun Euskal Herri aske, sozialista eta feministarako bidean beste pauso bat emateko.

Egunari hasiera emateko, Elkartearen 11:30etan "Nola bizi nahi dugu gure herrian?" tailerra antolatu dugu. Bertan tarte bat eskainiko diogu bizi garen herriaren gainean hausnartzeari. Beharrak identifikatu eta nola antolatu nahiko genukeen irudikatuko dugu bertan. Herriko gazteen kezka eta egoera elkarbanatu eta bertatik eraldaketarako indarrez ateratzeko helburua izango du, beraz, tailerrak.

Ondoren, 13:00etan poteo musikatuaz girotuko gara eta, jarraian, bazkaria izango dugu. Bazkalosterako bingo musikatu ere antolatu dugu, eta, arratsaldean, Ernaik urtero antolatzen duen Topaguneari tarte eskainiko diogu. "Bizitzeko modu bat" da aurtengoaren izena eta 17:30ean hau aurkeztearekin batera beste urteetako topaguneari gogora ekarri nahi ditugu. Horretarako jendeak bidalitako argazkiak tabernan jarriko ditugu erakusketa moduan, aurreko urteetako gozamenaren nostalgia aurtengo topagunera animatzeko motibazioan bihurtzeko! Argazkiak bidaltzeko 611 49 56 27 zenbakira idatzi beharko da.

19:00etan, Goiatzen eskutik, kontzertu akustikoa izango dugu, jai giroan sartzeko, eta, ondoren, afaltzeko aukera egongo da tabernan. Azkenik, Gordas Pinponeras DJek dantzari jarriko gaitu.

Gure artean harremandu, hausnartu eta, noski, gozatzeko aukera izango dugu Martxoaren 18an Irunberrin. Hortaz, herriko gazteak goizetik parte-hartzera eta egun hontara hurbiltzera animatu nahi ditugu!

Bazkariko izen-ematea dagoeneko zabalik dago, bederatzi eurotan, Irunberri tabernan.



www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia

"Mailarik onena ematen saiatuko gara"

JON IRAZU ETA ARITZ ESKUDERO ERREMONTISTAK

ERREMONTA Adunarrak eta andoaindarrak erremonteko profesional mailan debutatuko dute larunbatean, Galarreta frontoian. Jendetza espero dute armailetan

Mikel Arberas ANDOAIN

Jon Irazu adunarrak eta Aritz Eskudero andoaindarrak urteak daramatzate frontoiz frontoi lehiatzen. Irazuk esku pilotatik erremontera egin zuen jauzi, eskumuturreko ebakuntzaren ostean, eskuz jarraitzeko eduki zituen arazoak medio. Eskudero, berriz, esku pilotatik palara igaro zen; larruzko eta gomazko paleta modalitatean aritu zen. Ondoren, erremontea probatu eta Galarretan entrenatzeari ekin zion.

Nolatan hasi zineten erremontean jokatzeko?

Aritz Eskudero: Jon eta biok Gaztelekuko pilotariak izan gara urte luzez. Umetatik, pilota eskolan jokatzeko eta entrenatzeko aritu gara, beraz, erremontean aritzeko gaitasuna, neurri batean, pilotari izaeratik datorrela esango nuke. Zera esan nahi dut, erremontean duela gutxi ikasi nuela jokatzeko, baina esku pilotaren oinarria jakitea oso lagungarria izan dela erremontean aritzeko.

Nire kasuan, esan bezala, urte luzez aritu naiz eskuz jokatzeko, baina, egun batean, aspertu edo grin hori galdu nuen eta pala mundura igaro nintzen. Palan oso gustura jokatzeko nuen arren, erremontea asko erakartzen



Irazu eta Eskudero, Berria txapelketaren aurkezpenean. ORIAMENDI

ninduen, eta, aukera eduki nuen, Imanol Ansarekin probatzen joan nintzen. Egun, lehenago erremontean hasi ez izanaren damu naiz.

Jon Irazu: Aritz bezalaxe, umetatik pilota munduan murgilduta egon naiz. Urte luzez pilotan jokatzeko aritu ostean, eskumuturretik operatu ninduten eta, ondoren, zailtasunak eduki nituen berriro pilotari ekiteko. Egun batean, duela lau zapabost urte, erremontea probatu eta oso erakargarria egin zitzaidan, gaur arte.

Lagunak izateaz gain, lehiakideak ere bazarete. Urrutira joan gabe, iragan ostiralean, erremonteko finalean elkarren aurka aritu zineten.

A.E.: Egia esan, nahiko argi nuen Jon eta biok ez genuela bikote gisa jokatu. Hala ere, txapelketa polita jokatu dugu eta ia partida guztiak oso orekatuak izan dira. Profesional mailan ere elkarren aurka jokatzeko jarraituko dugu, seguruenik. **Datorren larunbatean profesional mailan debutatuko duzue, Berria txapelketan. Esperotako zerbait al zen?**

A.E.: Duela bi aste mezu bat bidali ziguten, entrenamendua baino lehenago, Oriamendiko ofizinatik igaro behar genuela esanez. Bertan, kontratuaren zehaztapenak eman zizkiguten. Bi beharreen, lauok debutatuko dugu, agian, ala suertatu delako.

J.I.: Afizionatuen txapelketa hasi aurretik jakinarazi ziguten pare bat kidek profesionaletara jauzi egingo zutela. Esku pilotan horrelakoak sarritan gertatzen dira; zera esan nahi dut, zorteagatik edota bat-bateko beharrian batek sortuta, espero gabeko pilotariren batek debutatzea. Kasu honetan, guri egokitu zaigu eta ahal bezain beste ahalegintzen saiatuko gara.

Profesionala izatearen presioa sumatzen hasiak al zarete?

A.E.: Ez dut horrenbesteko presioa sumatzen. Profesional gisa ez naiz aberastuko eta ez da nire bizibidea izango. Hori bai, maila onena ematen ahaleginduko naiz, eta, sufritzeaz gain, momentuaz gozatzea izango dut xede.

J.I.: Beste partida guztietan bezalaxe, mailarik onena ematen saiatuko naiz. Agian, presio apur bat debuteko egunean sentituko dut, lagunak eta senideak ikustera bertaratuko baitira. Hori alde batera utzita, nahiko lasai nago.

Nola aurreikusten duzue profesionala izateko ibilbidea?

A.E.: Ezjakintasuna nagusi, jauzi handia baitago afizionatuen

"SUFRITZEAZ GAIN, MOMENTUAZ GOZATZEA IZANGO DUT XEDE"

ARITZ ESKUDERO

Berria txapelketa

Larunbatean ekingo zaio Berri txapelketari; berrikuntzen artean, lau erremontisten debuta egongo da: Jon Irazu, Aritz Eskudero, Urtzi Gurrutxaga eta Aitor Aiestaran.

Txapelketa ligaxkarekin hasiko da eta bi taldeetan banatuko dira. Batetik, A taldea: Goikoetxea-Aiestaran, Urrutia-Apezetxea eta Gurrutxaga-Zaldia. Bestetik, B taldea: Loitegi-Eskudero, Zaldia-Odei eta Irazu-Zubiri.

16:30ean hasi eta hiru norgehiagoka jokatuko dira, Galarretan.

mailatik profesionaletara, baina, oraindik, ez dugu aukerarik eduki beste pilotariekin alderatzeko. Txapela irabazteko aukera dugun bezala, azken postuan ere gera gaitezke. Larunbateko partidaren zailtasuna ugari argituko ditugu.

J.I.: Afizionatuen mailan betikook entrenatzen dugu elkarrekin, beraz, ez daukagu beste erremontistekin alderatzeko aukerik. Hau da, ez dakit gure maila zenbateraino den besteen antzerakoa. Aritzek esan bezala, ezjakintasuna nagusi!

"ERREMONTA PROBATU ETA OSO ERAKARGARRIA EGIN ZITZADAN"

JON IRAZU

berria
ERREMONTA TXAPELKETA 2023
zirk. badakizutako

GALARRETA JAI ALAI HERNANI
MARTXOAK 4 LARUNBATA
16:30 ETIK AURRERA

BERRIA TXAPELKETA (1/5 TANTO)
GOIKOETXEA V • AIESTARAN vs
GURRUTXAGA • ZALDIA I

BERRIA TXAPELKETA (3/5 TANTO)
LOITEGI • ESKUDERO vs
IRAZU • ZUBIRI

2. PARTIDA (4/5 TANTO)
URRIZ • AZPIROZ vs
ALDABE • BARRENETXEA IV

sukia **PAPELERA GIPUZKOANA DE DISTRIBUCIÓN, S.A.** **AIURRI**



Iosu Pagola, Urnieta Artola Harategiko jokalaria. UKE

Garesti dago garaipena Urnieta senior taldeentzat

ESKUBALOIA Neskek bigarren sailkatuaren aurka galdu zuten, eta, asteburuan, liderraren aurka jokatu dute

Erredakzioa URNIETA

Emakumezkoen mailan Irauli Bosteko taldeak lortu zuen garaipena (26-20). Bigarren zatian aurkariak alde handitza lortu zuten. Porrot honekin Urnieta Quel Abogados taldea laugarren postuan da sailkapenean.

Euskadiko Ligan zail dute urnietarrek garaipena eskuratzea. Urnieta Artola Harategiak ezin izan zuen Eibar B garaitu (26-28). Saiatu ziren, baina, azken minutuetan, armaginak hobeto aritu ziren eta horri esker bi puntuak eskuratu zituzten.



ANDOAINO

Eskolarteko proba Andoainen

TXIRRINDULARITZA Txikienek pedalkadei ekin diete. Denboraldiko lehen proba etxean bertan izan zen Andoaingo Txirrindulari Eskolakoentzat. Alebin eta infantil mailako korrikalariak Kaleberrian osatutako ibilbidean aritu ziren.



Artxiboko irudia. ZANPATUZ

Luz Ardidenera, Zanpatuzen eskutik

ESKIA Interesa duenak datorren martxoaren 6a baino lehen eman behar du izena

Erredakzioa URNIETA

Luz-Ardidenera irteera antolatu du Zanpatuzek, martxoaren 11rako. Eskiatzera zein snowboard egitera joateko aukera izango da. Egun bakarreko irteera da: egunean bertan, goizeko 06:00tan abiatuko da autobusa Matxo taberna paretik. Itzulera, aldiz, iluntzeko 20:00tan izango da. Interesa dutenek Matxon eman beharko dute izena, martxoaren 6a baino lehen.

Prezioak

- Autobusa eta forfaiata: 55 euro.
- Autobusa, eskien alokairua eta forfaiata: 75 euro.
- Autobusa, snowen alokairua eta forfaiata: 80 euro.

ESKUBALOIA Urola garaitu, eta bigarren postua eskuratu

1. lurraldeko senior mailako gizonetzkoen ligan mugarri bilakatu zen partida irabazi zuen Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak, sailkapenean bigarren zegoen Urola garaitu zutelako (29-28). Sailkapenean Ordizia da liderra (29 puntu), eta atzetik datoz Leizaran eta Urola. Biak ala biak, berdinduta (22 puntu).



ANDOAINO

Abiatu dute denboraldia

TXIRRINDULARITZA Junior mailako txirrindularientzat abiatu da denboraldia. Nafarroako Villatuertan aritu ziren, negu giroko hotz-beroarekin. Xemark Arteaga, Iker Ugartemendia, Markel Etxarri eta Ganix Ormazabal irten ziren Andoaingo taldearekin. Asteburuan neskak Nojan ariko dira, eta junior mailakoak lasterketak jokatu gabe geratuko dira azken orduan.



AIURRI

Plastigaur eta Aterpe, garaile

SASKIBALOIA Infantil mailako nesken taldeak urtarrean lortu zuen lehen garaipena, eta Inauteri osteko jardunaldian iritsi da bigarrena. Allurralden izan zen, berriro ere, Bera Bera taldearen aurka (34-17). Aterpek bere aldetik garaipen berria eskuratu zuen Easoren aurka, junior mailan (50-48). Kadete mailakoek eta junior mailako beste taldekoek ez zuten garaipenik eskuratu.

FUTBOLA Urola garaitu, eta bigarren postua eskuratu

Jubenilen Ohorezko Mailako 20. jardunaldian, Euskaldunak Lazkaoren aurka garaipena lortu zuen Ubitarten (2-1). Datorren asteburuan jokatu da Urki eta Euskaldunaren artekoa. Bigarren eta hirugarren doaz, hurrenez hurren, sailkapenean. Bien arteko alde 6 puntukoa da.

FUTBOLA Golik gabeko partida Mundaroren aurka

Astigarragan golik ez zen izan, Mundaroren aurkako partidari. Gorengo mailan laugarren postuari eusten dio Euskaldunako lehen taldeak. Asteburuan Roteta taldea dator Ubitartera. Lehen itzulian, Euskaldunak Roteta garaitu zuen etxetik kanpo gol ugari sartu ziren partidari (3-4).

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

ANDOAIN Pintxopote feminista
Andoaingo asanbladak deituta.
19:30, *Juanita Alkain plazatik.*

URNIETA Lehiaketa
Antia literatur lehiaketa haur, gazte eta helduen mailetan.
Lanak aurkezteko epea: Martxoak 17. Lekaio.

OSTIRALA 3

ANDOAIN Tailerra
Pankarta eta txapa tailerra, Andoaingo asanbladak deituta.
18:00, *Espigoia.*

ANDOAIN M8: Antzezlan
"La panadera". Iraganeko sexu-bideo bat sareetan zabaltzen da. Protagonistak 40 urte ditu orain.
20:00, *Bastero.*

LARUNBATA 4

ANDOAIN M8: Ekimena
"Berdintasunerako oihalak".
12:00-14:00, *Plaza morea.*

ANDOAIN Kontzertua
Oiasso kamerata.
20:00, *Bastero.*

ASTEARTEA 7

ANDOAIN M8: Ikus-entzunezkoak
Film laburren emanaldia.
18:30, *Bastero.*



Nerea Arriola aktorea. DANIBLANCO/WIKIPEDIA

URNIETA Bakarrizketa saioa Nerea Arriolaren eskutik
"Asterisko". Ezin enkajatu gabiltza gure egunerokoan. Asteriskoak al gara? Nortzuk gara? Nola bizi? Umoretik hausnartzen ditu Nerea Arriolak eguneroko abenturak eta desbenbenturak.
Martxoak 9, osteguna. 19:00, Sarobe.

ASTEAZKENA 8

ANDOAIN Manifestazioa
Martxoaren 8aren harira, Andoaingo asanbladak deituta.
18:00, *Goikoplazatik.*

URNIETA Elkarretaratzea
Martxoaren 8aren harira, Udalak deituta.
18:00, *San Juan plaza.*

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Erakusketa
"Joko amaigabea", Alicia Martin Lopezen eskutik.
18:30, *Bastero.*

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua
Kai Nakai artista.
20:00, *Bastero.*


LARUNBATA 11

URNIETA Bertso saioa
Unai Gaztelumendi, Oihana Iguaran.
Xoxoka.

IGANDEA 12

URNIETA Antzerkia
"Las que limpian", A panaderia.
19:00, *Sarobe.*

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Irati

Lar, 4. 19:30,
22:00.
Ig., 5. 19:30.
Astl, 6. 19:30,
22:00.

Mi querido monstruo
Lar, 4. 17:00.
Ig., 5. 17:00.

Ellas hablan
Lar, 11. 19:30,
22:00.
Ig., 12. 19:30.
Astl, 13. 19:30,
22:00.



SINOPSISIA



Irati
Zuzendaria, gidoia: Paul Urkijo. **Aktoreak:** Edurne Azkarate, Eneko Sagardoy, Itziar Ituño, Nagore Aranburu, Elena Ruiz, Iosu Eguskiza, Kepa Errasti... **Herrialdea:** EH (2022). **Hizkuntza:** Euskaraz. **Generoa:** Drama, mitologia. **Iraupena:** 111 min.

Irati, urteko euskal filma

VIII. mendean, gerlari kristau eta musulman talde bat Pirinio baskoi paganoan barrena dabil, haitzulo baten barrenean dagoen Karlomagnoren altxorra lortzeko asmoz. Bertakoen

arabera, jainkosa boteretsu bat bizi da han: Mari. Eneko gaztea da taldearen burua, eta Irati misteriotuak gidatzen ditu mundu mitologiko ilun batean barrena.

Kaletxikiko jaiak astebete atzeratuko dira

Tourra auzunearen erdi-erditik igaroko da, uztailaren 2an. Horrexegatik, jaiak atzeratzea erabaki dute

Erredakzioa ANDOAIN

Hilabete atzera, Andoaingo festazaleak eta bereziki kaletxikitarrak aztoratu zituen albistea eman zuen Frantziako Tourraren antolaketak. Izan ere, ibilbidea iragarri zutenean, uztailaren 2an

Kaletxiki erdi-erditik igaroko zirela jakin zen. Igandea da, jaietako azken eguna. Plazatzxoan izaten da taula-gaina, barra, sardin-jaterako parrilla... Zer egin jaiarekin nazioarteko proba erraldoia bertatik bertara igaro-

ko bada? Asteotan, azterlan lanetan aritu dira eta, Aiurrik jakin ahal izan duenez, festak astebete atzeratuko dira. San Pedro eguna ekainaren 29a da, eta aurreko ostegunarekin dizango da. Santuarekin bat eginez, ekitaldi xumeren bat egiteko aukera ez dute baztertu. Baina jaiak ez dira ekainaren 30etik uztailaren 2ra ospatuko, uztailaren 7tik 9ra baizik. Txupinazoa galanta izango da. Eta ez bakarrik Nafarroako hiriburuan, baita Andoaingo auzune maitean ere.



Kaletxikiko jaiak, iazko igandean. AIURRI



Andoain Laburrean, sari-banaketa ekitaldia

Alex Merinoren "Ihesi" laburmetraiak jaso du lehen saria, aurtengo Andoain Laburrean lehiaketan. Bigarren saria "Gizaki egiten gaituena" laburmetraiak jaso du, Ohian Nietok lantaldearen izenean jaso zuena. Ikuslearen saria, berriz, "Begiradak"

dokumentalarentzat izan da. Ainhoa Aiertza aurkezle eta ESCIViko irakaslearen esanetan, aurtengoan, lan gutxiago aurkeztu dira, baina kalitatez hobeak eta maila altuagokoak izan dira. Ekitaldiaren amaieran ikusleek Nagore Murielen "Erro bi" laburmetraia ikusi zuten.

Antia literatur lehiaketa

Haur, gazte eta helduen mailako lanak Lekaion aurkeztu behar dira. Parte hartzeko epea martxoaren 17ra arte egongo da zabalik.

Odol-emaileen hitzorduak, martxoan

Andoaingo odol emaileen hitzordua datorren martxoaren 13an izango da, astelehenarekin. Eta Urnietan datorren martxoaren 17an, ostiralararekin.

Aste Santuan Gironara, Euskaldunarekin

Gironako GR-92an barrena txangoa egingo dute, Portboutik Rosesera. Informazioa eta izen-ematea elkartearen, bazkide ez direnentzat.

Harremanak euskaraz Andoaingo Udalarekin

Andoaingo Udalak, ahal dela, herritarrek harremanak euskaraz izatea sustatu nahi du. Zentzu horretan, 2001etik 2004ra 18 urte bete dituztenek kanpainaren nondik-norakoa azaltzen dien eskutitza jasoko dute etxean. Hemendik aurrera Udalarekin dituzten harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzten izan adieraz dezakete eskutitzarekin batera azaltzen den inprimakia beteta, eta Udaletxeko Atarian edo Bastero Kulturguneko harreman aurkeztuta. Horretarako, martxoaren 31 bitarteko epea izango dute. Inprimakirik aurkeztu ez bada, Udalak ulertuko du harremanak euskaraz izan nahi dituela herritarrak. Egun, 3.000 pertsona dira harremana soilik euskaraz dutenak.



Otsaileko irakurrienak Aiurri.eus webgunean

Inauterietako irudiak, Ixiar Arinen heriotza eta Euker Garmendiaren hautagaitza irakurrien artean dira

Analisia | 2023, otsaila

Aiurri astekaria

Inauterien hilabetea igaro da, eta Aiurri.eus webgunean ehunka argazki eskegi ditugu. Inauterietako larunbatean, Andoain eta Urnietan, parte-hartzea hain handia denez, argazkiekiko interesa ere halakoxea izaten da.

Heriotzak ere, aurreko hilabetearen aipatu genuen moduan, arreta berezia pizten du eta Ixiar Arinen eta Patxi Mendikutereren heriotzen albisteak zabalkunde handia izan dute. Oraindik orain, Amaia Agirre Gonzalez Urnietako mendizalearen heriotzak arreta beregintzen du. Otsaileko irakurrien artean dago haren omenez antolatu zen ekitaldiaren kronika.

Aktualitateari dagokionez, Urnietako EH Bilduko hautagai berriaren albisteak bisitaldi asko eragin ditu. Irakurrien artean dago "Euker Garmendia izango da EH Bilduko hautagaia" albitea.

Ezbehar edo ezustekoei dagokionez, bi albiste izan dira irakurrien artean daudenak: "Gehiegizko abiadurak gertaera ikusgarria eragin du Juan Bautista Erro kalean" eta "Sutea piztu da Kale Nagusiko lurraraziko garajeetan". Zorionez, bi kasuetan ez da ezbehar larrik izan.

Sardinaren ehorzketa, 1983ko Inauterietako irudi-sorta eta Kaldereroen etorrera argazki-bildumak ere ikusien artean daude.

Albiste zehatzez gain, interneten dabilen askok Aiurri.eus klikatzen du zuzenean. Webguneak, egunerokoan, gure artean pizten duen arretaren seinale onena da.

Banda errepublikarraren lehen entsegua

Datorren apirilaren 15ean 36ko Gerran fusilatutako omenezko ekitaldia antolatuko du Oroituz, Andoainen elkarteak. Abesbatza Errepublikarrak hutsik egin gabe parte hartu ohi du ekitaldian, eta dagoeneko lehen entsegua iragarri du. Martxoaren 3an izango da Andoaingo Gaztetxean, iluntzeko 19:00tan hasita. Entsegua Joxe Mari Oizartabalen zuzendaritzapean egingo dute. Abestu nahi duen orori zabalik dago gonbidapena.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Hegoa Mariezkurrena Zubillaga
Zorionak Hegoa, 3 urteko! Ze handia eta zein zoragarria!!! Izugarri maite zaitugu, ilargiraino ta buelta, infinituraino! Muxu potoloak. Amatxo, aitatxo, Iker eta Haiz.



ANDOAIN
Alaia Fernandez Saez
Martxoaren 8an, 11 urte beteko dituzu! Asko disfrutatu zure egunaz maillia eta jarraitu zaren bezalakoa izaten! Izugarri maite zaitugu! Indar, amatxo eta aitatxo.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

MARTXOAK

10-11

OUTLET

KALEAN

GORA KALETXIKI

TXARANGA

18:00 - 20:00

ANDOAINGO

DENDAK

BETI ZUEKIN

S2

SALKIN

bertatik bertara

ANDOAIN

Berdintasunaren Dihalak-Retales

Berdintasunaren aldeko bi martxa

- Ama Kandida hirigunean, nagusien egoitzatik Plaza Moreara.
- Algodonerako emakumeen plazatik Plaza Moreara.

Ondoren, festa:
Aldarrikapenak, pintxoak, DJ Fresa Morango... eta sorpresak!



ANDOAINGO UDALA

Batu zaitez zu ere!